

EHUNEN DEIAK ERREAKZIO BAIKORRAK ERAGIN DITU EUSKAL ALDERDI POLITIKO ETA SINDIKATUETAN

Alderdi sozialistak Frantzian aztertuko du departamenduaren gaia

■ Irailean edo urrian egingen den manifestaldian parte hartzeko prest agertu da Frantxua Maitia sozialista

■ Max Brisson-ek dio RPR alderdi politikoak so egile gisa parte har dezakeela Ehunen Deiaren ekimenean

■ François Bayrou UDFko eta egungo Pirinio Atlantikoetako departamenduko buruak «arduragabekeriatzat» jo du

Hur Gorostiaga / Baiona

EUSKAL DEPARTAMENDUAREN inguruan mobizatzeko Iparraldeko ehun eragile publikok egindako deiak hainbat erreakzio sortu zituen atzo. Frantxua Maitia sozialisten idazkari nagusiak EGUNKARIARI egindako adierazpenetan, alderdi sozialistak heldu den egunetan Frantziako eztabaida bat egingen duela adierazi du, eta gaia «alderdiaren baitan berpiztu» egingo duela aitzinatu. Maitia prest agertu da heldu den irailean edo urrian egitekoa den manifestaldian parte hartzeko.

Max Brisson RPRko bozeramaileak, berriz, alderdiaren baitan eztabaidatu beharra azaldu du, eta so egile gisa parte hartzeko aukera agertu, baina RPR zatitzeko arriskurik ez duela hartuko adierazi digu.

François Bayrou Pirinio Atlantikoetako buru eta Euskal Departamenduauren aurkari nagusiak, berriz, belduraren estrategia erabili zuen atzo @RFPB irratian. «Gobernuak bere erabakia hartu du, eta inongo gobernu arduratsuk ez du beste hautu bat egingen, inork ez baitezake uka zer gertatzen den mugaz bestaldean. Mugaz bestaldean gertatu dena gure etxean gertatzea ez badugu nahi, gure ardurak hartu beharko ditugu».

Horiez gain, AB, EAJ, EA, ELB eta CFDTko ordezkariak baikor agertu dira, EGUNKARIARI eskaintako erreakzioetan.

Frantxua Maitia • PSko bozeramaile

«Alderdi sozialistan nazional mailan eztabaida berpiztuko da»

1. «Sozialista ordezkari batzuek beren sustengua eman dute, baina bertze anitz izaten ahal ginen, Al-



Maitia, Capdevielle, Saint Martin eta Aniozbehere, Euskal Departamenduaren aldeko agerraldi batean.

BOB EDME

GALDERAK

1. Zein da zure iritzia Ehunen Deiari buruz? 2. Nolz heldu dira alderdietako kideak elkarrekin lanean aritzera? 3. Zure alderdi edo erakundeak parte hartuko al du ekimen berri horretan?

bert Pery edo ni bezala. Ene ustez, Euskal Departamenduaren Aldeko Hautetsien Elkarteak eta AND elkarteak beste manifestaldi bat antolatzea bide ona da. Alderdi batek antolatu ordez, hobe bi elkarte horiek egitea. Baldintza horietan, iduritzen zait sozialistek parte har genezakeela halako elkarretaratze batean».

2. «Ideiak aldatu dira urteak jin eta urteak joan. Anitz gauza lasaitu zituen Pierre Joxek 1988an honat jin zelarrik, eta orduan abiatu urratsetan ari gara orain. Euskal Kultur Erakundea, Euskal Kulturaren aldeko sindikata, biltzarren bateratzea, debatea hor pausatua izan da urtetik urtera, eta, azkenik, *pays* egiturak ere abiarazi gaitu elkarrekin lan

erreakzioak

× **Frantxua Maitia** (PS): «Europar euskal estatu bat sortu nahiak jende anitz hoztu du. Helburua departamendua baldin bada, Frantziako beste departamendu bat bezala izan behar du»

× **Max Brisson** (RPR): «Euskal Herria 2010 eta Garapen Kontseiluan egindako lanen ondorioz, Ipar Euskal Herriko gizon eta emazteek elkarrekin mintzatzen eta elkarrekin lan egiten ikasi dute, eta horregatik heldu da aldaketa»

× **Xabi Larralde** (AB): «Mobilizazioa Euskal Departamendua lortzeko beste tresna bat bezala ageri da gaur egun, eta Ehunen Deiak bide horretan beste etapa bat egiteko xedea agertu du»

× **Jean Baptiste Etxeto** (CFDT): «Alderdi politiko eta organismoetako kideak alde agertzeak Euskal Departamendua sakoneko behar bat dela agertarazten du»

egitera. Baina argiki erraiteko, Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarrak, Europar euskal estatu bat sortu nahiak jende anitz hoztu du. Helburua departamendua baldin bada, Frantziako beste departamendu bat bezala izan behar du. Adostasun horrekin posible da lan egitea. Ber mementoan erraiten bada segidan behar dela bertze zerbaiteratsatu, horrek hoztuko ditu anitz jende».

3. «Ene ustez, ehun horien deiari beharko da erantzun bat egin. Alderdi sozialistan, maila nazionalean guti dira hortaz arduratzen direnak. Nor da oroit François Mitterrandek bere 110 proposamenetan Euskal Departamendua proposatua zuela? Berriz ere eztabaida hori irekiko dugu maila nazionalean alderdi sozialistan. Heldu den egunetan bilkura bat egingen dugu maila nazionalean horretaz mintza gaitzen. Batzuek aipatu baitute debate hori arras mugatua zela, eta ez zela gehiago ai-